

ZORTZIGARREN GAIA: ESTATUA ESTATU SOZIAL BEZALA


1.ESTATU LIBERALAREN KRISIA

Krisi honen agerpena XVIII.mendean izan zen eta XIX.mendean zabaldu egin zen mundu mailan; hori litzateke **lehen fase bat** agerpen eta hedapen fasea. **Bigarren fase bat** XIX eta XX.mendean zehar etorriko zen eta hori izango litzateke estatu konstituzionala sendotu egiten denean zuzenbide estatu bezala; fenomeno juridiko nagusia Europan izango litzateke estatu konstituzionalak lotesle bihurtzea, hau da, konstituzioak ideia politikoak izatek arau juridiko izatera pasatu ziren. **Hirugarren fasea** estatu konstituzional liberalaren demokratizazioa; fase hau ere emango da XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendea aurrera joan ahala. **Laugarren fasea** izango litzateke estatu konstituzionala estatu sozial bezala, nolabait zein hasten den I.mundu gerraren amaieran, estatu batzuk estatu sozialaren ezaugarri batzuk biltzen hasi ziren baina estatu soziala forma politiko bezala gailentzen da II.mundu gerra amaitu eta gero.

Zertan islatu egiten da estatu liberalaren krisia? Ikuspegi sozialetik bukatzen da estatuaren abstentzionismoaren eredu. Estatu liberalaren printzipio nagusia estatu minimoa zen eta eredu horrek crack egiten du zeren eta estatuak herritarrek babesteko ideia gailentzen delako, hori 1929ko krisiarekin ikusten hasi zen nola merkatuak bera soilik ezin zuen krisia gailendu. Eremu ekonomiko eta sozialen islatzen da krisi hori baita ere nazioarteko krisia (estatu liberalak ez ditu nazioartean nazioen arteko harreman baketsuak sustatzen) eta hirugarren eremu batean ere du krisia estatu liberala, ikuspegi demokratikoan, zeren eta, bere egitura politikoak ez ziren demokratikoak, eta denboraren poderioz demokraziaren aldeko mugimenduak indarra hartzen zihozten.



Estatu liberalaren krisiaren aurrean hiru estatu mota sustatu ziren. **Bat atzerakoia edo erreakzionarioa** (faxismoa eta nazismoa irudikatzen duten moduan; hauen ezaugarri nagusiak: alderdi bakarreko estatu totalitario bat, antiliberala dena eta antisozialista, ikuspegi konstituzional batetik estatu mota horretan nabarmena da askatasun demokratikoen eta konstituzio bermeen ezabapena), **bigarrena haustura iraultzailea planteatzen duena estatu liberalarekin** (XX. mendeko sistema komunistek ordezkaten dutena, estatuak ideologia marxista leninista dutenak, ekonomiaren planifikazio zentralizatuarekin, antolaketa eredu oinarritzen zen zentralismo demokratikoan, hau da, agintariak botere maila handia dute, aginduak transmititzen dituzte eta behekoek betetzen dituzte baina agintariak hori egin ahal du herriak nahi duen bitartean, agindu horiek betetzeko asmoa ez bazuen errebokatu ahal ziren, *bertikalitatea*) eta **hirugarrena ez dena haustura estatu liberalarekiko baizik eta estatu liberalaren erreforma estatu sozial bezala** (merkatu kapitalistaren eredu mugitzen ari gara, estatu sozial liberal formakoa, baina planteatzen duena herritarra babestu behar dela, oinarrizko eskubide sozial batzuk ziurtatuz).



2.ESTATU SOZIALAREN OINARRIZKO PRINTZIBIOAK

Batetik esaten da, ezaugarri bezala dagoela, estatuak parte hartzen dauela ekonomian, merkatua erregulatzen duela eta beraz ekonomia mistoa dela, publikoa eta pribatua, hauen adibide batzuk elikagai batzuen prezioa arautzea gehiegi ez igotzeko, enpresa publikoak, gizarte laguntzak eta zerbitzu publikoak (hemen adibidez, estatu sozial batean tipikoa da, RGI, hezkuntza eta osasun zerbitzu publikoak)

Konstituzio zuzenbidearen ikuspegitik, eskubide sozialen eskagarritasun juridikoa, alegia tribunaletara joan ahal gara dagokion eskubide soziala eskatzera.

Azken elementua, ordezkaritza demokrazia



3.ESTATU SOZIALAREN KRISIA

1973ko petrolioaren krisian jar genezake krisi honen hasiera. Urte horretatik aurrera hasiko da gobernante multzo bat boterera heltzen nortzuk estatu soziala estatu sostengaezina defendatzeko nahiarekin. Sozial demokraziaren politikak 1973ean krisian sartuko da eta beste politikak sartuko dira; Margaret Thatcher eta Ronald Reagan. Latinoamerikan neurri neoliberal bortitzak hartzen hasiko dira 80ko hamarkadan, oso nabarmenak izan zirenak eta asko luzatu zirenak beste gobernuekin. European neurri neoliberalak gehiago atzeratu ziren eta bloke sobietarraren erorketarekin batera neoliberalismoa bidea irekia ikusten du zabaltzeko, eta orokorrean emango dena izango da eskubide sozialen murrizketa oso zorrotza, gutxi gorabehera espainiar estatuan hau 90. hamarkadaren bigarren erdialdean koka genezake hau.



4.ESTATU SOZIALA 1978ko KONSTITUZIOAN

Jakin behar den lehen gauza, konstituzioak erabaki politikoak hartzeaz gain erabaki ekonomiko eta sozialak jasotzen ditu, konstituzioaren atal horri normalean konstituzio zuzenbidean konstituzio ekonomikoa deitzen zaio. Bigarrenez, eskubide zibil eta politikoekin batera, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak jasotzen dira konstituzioan. Estatu sozial bat eratzeko hirugarren printzipio bat, oso garrantzitsua dena, berdintasun materialaren printzipioa da (legearen aurrean eta errealitatean berdintasuna bermatzea), **EKren 9.2.artikulan dator hau jasota.**

Zer jasotzen da konstituzioan ekonomiari dagokionez? *Batetik*, askatasun ekonomiko klasikoak bermatzen dira (jabetza pribatua edo merkatu askatasuna, adibidez). ***Bestetik*,** ahalbidetzen da eskuartze publikoa bizitza ekonomikoan eta zehazki aurreikusita dago ekonomia plangintza. ***Eta hirugarrenik*** ekonomian sektore publiko bat egotea ahalbidetzen da.

Zer jasotzen da konstituzioan eskubide sozialei dagokionez? Beraien eraginkortasun maila ez da berdina, eskubide sozial batzuk babestuagoak daude besteak baino. Orokorrean lau bloke desberdintzen dira eskubide sozialetan espainiar konstituzioan:

- 1- Zerbitzu publikoak antolatzen dituzten eskubideak
- 2- Lan harremanak konfiguratzeko dituztenak (lan munduarekin zerikusia dutenak)
- 3- Bazterketa egoeran dauden talde sozialen eskubideak
- 4- Ingurumena babesteko eskubideak

15.artikulutik – 29.artikulura oinarritzko eskubideak dira (lege organiko bidez arautu behar dira, legeak bere oinarritzko edukia gorde eta errespetatu behar du eta konstituzio auzitegira joan ahal gara hauek exijitzera errekurtsio bidez)

30.artikulutik – 38.artikulura eskubide arruntak dira (lege bidez arautu behar dira, eta legeak beren oinarritzko edukia babestu behar du)

Hortik aurrera jasotzen direnak 39.artikulutik 42.artikulura politika ekonomiko eta sozialaren printzipio azterkariak dira (hauek nolabait legea informatu egiten dute, legearen inspirazio printzipioa dira)


VII.titulua (hazienda eta ekonomia).

I. TITULUAN:

- Hezkuntzarako eskubidea (EK, 27); Greba egiteko eta sindikatze Eskubidea (EK, 28)
- Lan egiteko eskubidea (EK, 35); Lan hitzarmen eta lan negoziatzeko eskubidea (EK 37)
- Familiaren babeserako eskubidea (EK 39) –Errenta eta enplegua banatzeko politika (EK 40)
- Etxebizitza eskubidea (EK 47) –Gazteriaren aldeko politikak (EK 48)
- Gutxitu fisiko, sentsorial/psikikoen aldeko politikak (EK 49) –Zahartzaro pentsioak (EK 50)

VII. TITULUAN:

- Interes orokorra (EK 128)
- Jarduera ekonomikoaren planifikazioa (EK 131.1)
- Konteilu ekonomiko eta soziala (EK. 131.2)



9.2 ARTIKULUA: Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen; askatasun eta berdintasun xede hori galarazten edo osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kentzea, eta herritar guztiei aukera egokia ematea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko.